

AURKEZPENA

Gu Oroitz Guerrero, Unai Etxeberria, Iñigo Salegi, Julen Dominguez eta Aimar Udabe gara, eta gure taldearen izena OUIJA da. Gure proiektua aterki ontzi elektrikoa da.

Produktu hau, aterkiak azkar lehertzeko helburuarekin gauzatu dugu, askotan etxe edo dendetako aterkiontzien ingurua bustia egoten delako. Horrela, produktu honekin ohikoak diren potzuak desagerraraziko ditugu, eta honek denda eta etxe askori itxura hobea emango dio.

Idea hau, gure taldekide bat herriko denda batera sartu zenean eta bertan aterkien ondorioz sortutako putzua ikustean bururatu zitzaion, eta azkenean taldekide guztien artean aurrera eraman dugu. Modu asko daude aterkiontzi elektriko bat sortzeko, eta gauza asko hartu behar dira kontuan; ura nola kanporatu, materialak, tamaina, nola lehortu... hau guztia hainbat dokumentutan azaldu dugu, horrela proiektua garatuz.